

lenbizikotz Euskaltzaindiak izendatu du: Martín Lekuona jauna. Auferantzean berak aukeratu ta izendatu bezate: guziak ordea Euskaltzaindiaren babespe ta mendean begoz.

2.^a Azkue jaunak bere lan bat irakurri du. Agustín Chaotzaz, bere aldizki L'Ariel-tzaz ta Chao-k somatutako Artor ospetsua ere lan ofetan aipatzen du.

3.^a Euskaltzaindiak, eman oi dizkioten sorozpide ta laguntzai zerbaitez ere erantzunik, Izkuntza-goikaskbideak Bilbon eratsi nai ditu. Ikasbide abek datoñen Azaroan asiko dira iragañiko diran egun eta tokian. Ikasbide abek Juan Gorostiaga apaiz gazteak esango ditu, auxe bai-da ikasketa ta ezaguera oietan ongi saiatua. Auxe beaz izendatzen da ikastaro aben irakasle, bañan izendamen onek eztu ezertan izpetzen Euskaltzaindi bera. Orain datozen sorozpideak urituko balira, ez du Euskaltzaindiak zer ikusterik izango.

Ta beste gai batzuk bigaramonerako utzita, otoitzez amaitu da.

Bilbon Euskaltzaindiaren etxean, 1933'ko Urriaren 20'an.

Euskaltzain jaun auk bildu dira: Azkue, maipuru; Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe ta Elissalde; urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitzez asi dira.

1.^a Azkue jaunak aipatu ta beste euskaltzain jaunak abo batez baietz esanda, Euskaltzaindiak bere deduzko euskaltzain Henri Gavel jauna izendatu du.

2.^a Euskaltzaindiak irañi nai lituzke aituta dauden liburu-euskaldun zarak, batez ere eñiak sañi eskatzen dituenak. Badaki ordea *Zabalkundea* irarlanetan oso atzari dabilela ta badala ontan bai Euskaltzaindi

berarentzat bai Zabalkundearentzat naiko ta naiko zeregin. Oregaitik alkar itz egin bear dute auéran-
tzera jañaitu baño len.

Euskaltzaindiak irar lezazkike jakin-gaiak dagoz-
kienak; Zabalkundeak irakurgañi letozkenak. Au aué-
rontz eraman baño len, Zabalkundeakin itz egin
bear da.

3.^a Iztegi beñiaren irarkoleak alako oarbide batzuek
azaldu dizkigu. Oarbide auek ondo egiñak daude eta
oiek dasatena egin bear da, naiz iztegiaren azalkun-
dea geiago berandutu.

4.^a Aita Intzak eñiak darabilzkien itz-zerenda
ekañi digu.

5.^a Iztegirako itz beñi bila jardun degu.

6.^a Azkue jaunak bere lan bat irakuñi digu: *Ob-
servaciones a las notas del señor Alfube sobre el
Santoral Vasco.*

Otoitzez bukatu da batzaraldia.

Doñostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Azilaren 2'an.

Jaun auek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo,
Eguskitza, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta
urgazletatik Ormaetxea.

Otoitzez asi da.

1.^a Azkue jaunak esan digu Bilboko Udalan izan da-
la, gure lankide Gorostiaga jaunak eman bear duen ikas-
tarorako toki bila. Udalak ez du artarako tokirik. Gero
joan da Gallano jaunarengana, jaun au bai-da Aldun-
diburu, ta onek eman dio toki ori *Instituto*-an. Eskeñak.

2.^a Henri Gavel jaunaren eskutitz bat artu degu,
Euskaltzaindiari eskeñak emanik, bera deduzko
euskaltzain aukeratu zuelako.